

"SUSTRAITU, BUSTI ETA EMAN FRUITUA"

LEHIAKETAREN HELBURUA

Lehiaketa hau **Emausko Eskolapioen** Ikastetxeetako **Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako** ikasleei zuzenduta dago, Bokazio astea sormen artistikoaren bidez dinamizatzeko. Proposatutako hiru leloetatik abiatuta, parte-hartzaileei gonbita egiten zaie artearen bidez bizitzan haztearen, sakontzearen eta fruituak ematearen esanahia adierazteko. Hiru leloak hauek dira:

🌿 **Sustraitu**

💧 **Busti**

🍎 **Zure fruituetatik antzemango zaituzte**

PARTE-HARTZAILEAK

Ikastetxe escolapioetako ikasle guztiek parte hartu ahal izango dute, honako kategoriatan banatuta:

- **A Kategoria:** LH 3. mailatik 6. Mailara
- **B Kategoria:** DBH 1. mailatik 4. mailara

Parte-hartzea **banaka edo taldeka** izan daiteke (gehienez 3 ikasle taldeko).



GAIA ETA FORMATUA

Parte-hartzaile **bakoitzak hiru marrazki edo kartel** sortu behar ditu, lelo bakoitzeko bana.

- Hiru lanek **estilo bateratua** eta koherentzia bisuala izan behar dute.
- Formatuak:
 - **Fisikoki:** kartulina, marrazkia, pintura, collage...
 - **Digitalki:** ilustrazioa, argazkia, diseinu grafikoa...
- Gomendatutako tamaina: **A4 edo A3**.
- Kartel bakoitzak dagokion lema modu ikusgarrian jaso behar du.



BALORAZIO IRIZPIDEAK

Epaimahaiak honakoak hartuko ditu kontuan:

- Leloen adierazpenean **originaltasuna eta sormena**.
- **Mezua**: bokazioarekin, hazkunde pertsonalarekin eta Jesusek bizitzan egin digun deiari lotutako sakontasuna.
- Hiru kartelen arteko **koherentzia estetikoa**.
- Lanaren **zaintza eta aurkezpena**.

LANAK AURKEZTEA

- Lan bakoitzak atzealdean (edo formatu digitalean, erantsitako dokumentu batean) honako hauek izan behar ditu:
 - Egilearen edo taldearen izen-abizenak
 - Ikasturtea eta ikastetxea
 - Proposamenaren esanahia azaltzen duen 3-5 lerroko azalpen laburra
- **Ikastetxeek kategoria bakoitzeko lan onenak aukeratu eta epaimahai orokorrera bidaliko dituzte**, eskaneatuta, apirilaren 15a baino lehen helbide honetara:
serescolapio@escolapiosemaus.org

EPAIMAHAIA ETA SARIAK

Epaimahaia eskolapioen sareko arlo pedagogiko eta pastoraleko ordezkariak osatuko dute.

Kategoriako sariak emango dira, eta hauek izan daitezke:

- Liburuetarako erosketatxekeak
- Eskolapioen produktuen sorta

Epaimahaiaren erabakia apelaziorik gabea izango da, eta **maiatzaren 20an** jakinaraziko da.

LANEN ESKUBIDEAK ETA ERABILERA

Saritutako edo hautatutako lanak sare eskolapioaren komunikazio-materialetan eta kanpaina bokazioaletan erabili ahal izango dira, beti egileen izena aipatuz.

OINARRIAK ONARTZEA

Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauen onartze osoa dakar.